

2005EKO URTARRILAREN 27KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko urtarrilaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Alvarez Novoa.

Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- EUROPAKO KONSTITUZIOAREN ERREFERENDUMERAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Europako Konstituzioaren inguruan 2005-eko otsailaren 20an egingo den erreferendumerako Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Hauteskunde Erregimen Orokorrekoa den ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta besterik gabe, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.